



## EUSKAL HEDABIDEENTZAKO LAGUNTZAK

# Inputatu gisa deklaratu du Pegenautek, ustezko prebarikazioarengatik

Hedabideen laguntzen inguruko azalpenak eman beharko ditu Hizkuntza Politikako zuzendariak

Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi Pedro Pegenaute inputatu gisa deklaratzera deitu du Instrukzio Epaitegiko bigarren salak, hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko iaz eman ziren laguntzetan prebarikazioa egin zuen argitzeko. *Diario de Navarra* egunkariari garaiz kanpo eskatutako laguntza emateagatik kereila jarri zuen Batasunak. Urriaren 1 rako deitu du epaileak Pegenaute. /6-7

## LANDABEN

### Nafarroarako zein proiektu duen azaltzeko exijitu dio LABek Volkswageni

Zuzendaritzak onartu egin du UGT, CCOO eta CC sindikatuen proposamena

LABen ustez, «adabakiak jartzea» da Landabengo enpresa batzordeko gehiengoak herenegun zuzendaritzari egin zion proposamena. /19

## IRLANDA



PAUL FAITH / EPA

Bairbre de Brun Osasun ministroa Stormonteko Sinn Feinen bulegoan, Poliziaren miaketaren ondoren.

### Sinn Feinen aurka ekin dio Poliziak Stormonten

Ostiral Santuko Akordioaren aurkako eraso salatu dute errepublikanoek

IRAre aurkako operazioa zela esanez, Stormonteko Parlamentuko Sinn Feinen bulegoetako bat miatu zuen atzo Ipar Irlandako Poliziak, eta azkenaldiko iskanbila politiko handienetako bat sortu. Ipar Irlandako lehen ministro David Trimble berehala eskatu dio Londresin Sinn Feinen aurkako neurriak hartzeko, eta errepublikanoek, berriz, alderdia zikintzeko erasotzat jo dute ekintza. Sinn Feineko kide bat eta beste hainbat lagun ere atxilotu ditu Poliziak. /23

**ITSAS MENDI**  
karabanak

Kontzesionario Ofiziala

Autokarabanak: HYMER, KNAUS, PILOTE, RIMOR, BENIMAR.  
Autokarabanak alokairuan  
Karabanak: KNAUS, ERIBA, ROLLER.

**Salmenta ondoko zerbitzu bermatua**  
(Larunbatetan goizez zabalik)  
☎ (943) 59 32 90  
ANDOAIN (Gipuzkoa)

euskal mitologia

30 PERTSONAIA

Urriaren 6an, igandean,  
EGUNKARIArekin karpeta eta  
Ama Lurraren lamina DOAN.

**Egunkaria**

LIBURUDENDA

**Hontza**

OKENDO KALEA, 4 • Tel.: 943 42 82 89  
e-mail: hontzaliburu@euskalnet.net  
20.004 - DONOSTIA

(IN) KOMUNIKAZIOAREN ATARIAN  
PRENTSA ETA EUSKAL GATAZKA  
Petxo Idoyaga  
Txema Ramirez de la Piscina  
ALBERDANIA

Euskal gatazkarekiko trataera informatiboaz  
inoiz egin den ikerketarik handiena